

Gutxiengoak Europan

Euskaldunon Egunkaria, 1991-04-30: 2.

Historian famatuak diren Adan eta Evak ez zuten Estatu bat sortu, familia desakordiatu bat baizik. Gero, deitu inbasioak, menerapenak eta enperadorego aberatsak, denak izan ziren borrokaz eginak eta gerrak gero eta handiagoak eta ikaragarriagoak. Indarkeria horiek ezinbestekoak izango ziren, ez dakit, baina herriek jasan behar izan zituzten nolabait, eta indartsuen zapalketa eta ahulen makiavelokeri maltzurak tarteko joan ziren gero eta Estatu handiagoak sortzen. Europari dagokionez, mapak maiz berritzen zituzten: apurtu eta berria egin, apurtu eta bestea. Honela gaur arte. Orain 45 urte, Bigarren Mundu gerrostean egin zuten koloretan Europako azken mapa berria, eta irabazi zuten Estatuak tinkatu zituzten mapa horretan *betiko* ziren mugak. Baina orain dela urte pare bat desegin da Europako mapa hura, eta zanpatuta zeuden herriak eta hizkuntzak piztutzen ari dira. Bakoitzak komeni zaiona esaten du, noski, baina Ekialdean Estatuak hautsi badira, Mendebaldekoek oraindik tinko eusteko handiago den Estatu bat sortzea asmatu dute, herriak lozorroan geratuko diren esperantzan. Horiek dira herri eta hizkuntz gutxiengoak. Horiei piruli bana erregalatuko diete bere anai erabilketarako tirabira gai izan dadin.